

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Kobratzeko moduan jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. 2021eko ekitaldia

Egin da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zergadunen errolda. Jendaurrean dago 2021eko ekainaren 30eko ALHAOn, 72. zk., argitaratu zenetik. Zergadunen erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. apartatuan.

Arabako Foru Aldundiak onetsia, 2014ko urriaren 1ean.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko epean, 2021eko azaroaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 2tik 2021eko urtarrilaren 2ra.

B) Betearazte aldia: 2022ko urtarrilaren 3tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz. Helbideratutako ordainagiriak 2021eko abenduaren 15ean kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udaletxean eskatu edo sarrera egin ahal izango dute udalaren dirubilketa kontuetan, Banco Popular edo Kutxabank finantza entitateetan.

Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Alkatezari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2021eko urriaren 15a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ